# Teknologia Transferentzia 2022 programa

| | |
|---|---|
| Helburua (1. oinarria) | Teknologiaren heldutasuna erraztea da, Ikerketa eta Garapeneko proiektuen bidez, Bizkaiko enpresa-ehunetik teknologia hori praktikan aplikatu ahal izateko . |
| Erakunde onuradunak (3. oinarria) | Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide den eragile zientifiko-teknologikoentzat, gutxienez lan-zentro bat Bizkaian badute. Kategoria hauetako baten barruan egon behar dute:<br>i. Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak.<br>ii. Zentro teknologiko multifokalizatuak.<br>iii. Zentro teknologiko sektorialak.<br>iv. Ikerketa kooperatiboko zentroak.<br><br>50 langile baina gutxiago duen erakunde bakoitzak, eskabide bat aurkeztu ahal izango du. 50 langile edo gehiago duen erakunde bakoitzak, eskabide bi (2) aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. |
| Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. oinarria) | Ikerketa- eta garapen-proiektuak kategoria hauetako batean jarduketak burutzen dituztenak: oinarrizko ikerketa, ikerketa industriala, garapen esperimentala eta bideragarritasun-azterlanak.<br>Lehentasuna emango zaie heldutasun teknologikoaren goi-mailetan (TRL) garatu eta enpresentzako teknologia-transferentziako jarduerak (merkataritza-ustiapenerako) jasotzen dituzten proiektuei. Lehentasuna emango zaie, oro bat, RIS3 espezializazio adimentsuaren estrategian adierazitako eremuetan garatzen diren proiektuei; estrategia hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadiko 2030 Planean ezarrita dago |
| Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak (5. oinarria) | ▪ Proiektua burutzeko lanari dagozkion eskatzailearen barneko langileria-gastuak (ikertzaileak, teknikariak eta laguntza-langileak). Langile gastu zuzenak eta % 40 gehigarria zeharkako gasturengatik.<br>▪ Tresnen eta materialaren kostuak.<br>▪ Kontratu-ikerketen kostuak, eta lehia beteko baldintzetan kanpoko iturrien lizentzia bidez eskuratu edo lortutako ezagutza eta patenteenak, eta proiektura modu exklusiboan bideratutako aholkularitza-gastuak eta zerbitzu baliokideenak.<br>▪ Gastu orokorrak eta bestelako ustiapen-gastu gehigarriak. |
| Laguntzen zenbatekoa (6. oinarria) | (see table below)<br>Gehienezko ehunekoa aplikatuta aurrekontu-zuzkidura gainditzen bada, orduan, hainbatu egingo da.<br>Gehienezko dirulaguntza proiektu bakoitzean: 200.000 euro. |
| Arautegia eta emakida prozedura (8. eta 16. oinarriak) | **Apirilaren 12ko 48/2022 Foru Dekretua (2022ko apirilaren 20ko 74 zk.dun B.A.O.)**<br>Dirulaguntza programa hau Itunaren 107 eta 108. artikuluak (DO, L 187, de 26-06-2014) aplikatuta barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Araudipean dago.<br>Dirulaguntzak norgehiagokako araubidearen arabera esleituko dira. |
| Epeak (13. eta 25. oinarriak) | **Proiektuak gauzatzeko epea**: eskabidea aurkeztu ondoren hasi beharko dira eta 2024ko ekainaren 30a baino lehen amaitu.<br>**Eskabideak aurkezteko epea : 2022ko maitzaren 2tik maitzaren 20eko** 13:30etara arte, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, B@k, FEA…), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hori Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.. |

Laguntzen zenbatekoa (6. oinarria):

| Gastu kategoria | Laguntzaren gehieneko % | |
|---|---|---|
| | Lankidetza gabe | Lankidetzarekin |
| Oinarrizko ikerketa | 50% | 60% |
| Ikerketa industrial | 50% | 60% |
| Garapen esperimentala | 25% | 35% |
| Bideragarritasun-azterlana | 50% | 50% |